ELA EUSKAL SINDIKATUA

# LAS TRABAJADORAS DEL COMERCIO... ...¡EN LUCHA!

***Ese es el único camino para mejorar nuestras condiciones laborales***

## ORGANIZARNOS EN LAS EMPRESAS ES LA ÚNICA ALTERNATIVA

El pasado 18 de octubre LAB convocó a una reunión a las organizaciones patronales y sindicales con representación en el sector del comercio para impulsar un Acuerdo Marco Sectorial en el sector. El objetivo de esta iniciativa, según LAB, es "blindar el sector" para, entre otras cuestiones, impedir que en las empresas se puedan establecer condiciones de trabajo inferiores a las establecidas en el sector.

**¿Qué dijo la Patronal ante su propuesta?** La Patronal ha manifestado en público y en privado su satisfacción con la Reforma. Sabe que se ha hecho para ayudarle a empeorar las condiciones de trabajo y dijo que ni quiere ni puede impedir la posibilidad de negociar en las empresas por debajo del sector. Añadió, que un acuerdo como el que plantea LAB, sería nulo y no obligaría a las empresas. Le invitó a LAB a que lean la nueva Reforma.

**¿Qué dice la Ley tras la Reforma de Rajoy?** El art. 84 del Estatuto de los Trabajadores dice que con respecto al salario, distribución de jornada, modalidades de contratación, horas extras, medidas de conciliación y otras que se puedan añadir, prevalece lo que se establezca en la empresas por encima de lo que se pueda regular en cualquier otro ámbito. Sobre esas materias la reforma es muy clara: cualquier acuerdo interprofesional, acuerdo marco o convenio que pretenda impedir lo que se diga en la empresa sería nulo. La Audiencia Nacional ya ha dictado sentencia para consolidar esta posición.

Siendo esto así, el planteamiento de LAB, nos puede llevar a dos conclusiones:

**a.-** o desconocen la Reforma de Rajoy contra la que hicimos una huelga general diciendo que se cargaba la negociación colectiva.

**b.-** o han decidido no decir la verdad sobre esa reforma para trasladar a los y las trabajadores del sector una alternativa que es imposible.

CCOO y UGT por su parte, dijeron que no van a renunciar a ningún ámbito de negociación. Ellos, por medio de los convenios estatales, continúan usurpando la negociación colectiva para que no podamos negociar aquí.

ELA ha defendido siempre los convenios provinciales del comercio. Lo que sucede ahora –y sería una irresponsabilidad ocultarlo– es que Rajoy ha querido que los convenios dejen de ser convenios para que pasen a ser meras recomendaciones. Dejan de ser un mínimo de obligado cumplimiento para las empresas. ¿Por qué niega LAB lo que es evidente para todo el mundo? Desconocer esa realidad nos llevaría a no prepararnos para un futuro en el que va a ser esencial contar con fuerza sindical en cada empresa para defender nuestras condiciones de trabajo.

**ELA insiste en que el único camino pasa por organizarnos en las empresas.** Esa va a ser la única garantía para un blindaje eficaz; para poder defender las condiciones de trabajo. Es la ley la que envía a las empresas la negociación de materias esenciales. Es la ley la que nos manda a negociar materias fundamentales al ámbito de la empresa. Desde ELA no se entiende que tras la Reforma se siga negando que estamos obligados a negociar en las empresas.







# NO A LA APERTURA EN DOMINGOS Y FESTIVOS

En julio el Gobierno de Rajoy publicó un Decreto Ley que establece una serie de medidas en relación al Comercio Minorista y que tienen especial incidencia en determinadas materias, entre otras:

**a)** El número de domingos y festivos de apertura de comercios pasa de 8 a 10 como mínimo.

**b)** El horario comercial de apertura durante el conjunto de días laborales pasa de 72 horas a 90 semanales.

Con motivo de esta modificación el Gobierno Vasco nos convocó el día 2 de octubre para establecer el calendario de apertura en festivos.

La postura de ELA en dicha reunión fue:

- Que no vamos a negociar ningún tipo de calendario que permita la apertura ni en domingos ni en festivos. Llevamos años manifestándonos en este sentido. **Jai egunetan denok jai.**
- Que las y los consumidores y las asociaciones de comerciantes también se han posicionado en contra.
- Que hace unos meses hicimos una campaña recogiendo más de 60.000 firmas en contra de la apertura.
- Que es una medida que va contra el empleo. En el Estado español, donde se han llevado a cabo estas medidas, está habiendo una gran destrucción de empleo.
- Que vamos a seguir defendiendo el descanso semanal de las trabajadoras del comercio.
- Que esa decisión es contraria a las medidas de conciliación de la vida laboral y familiar.
- Que la ley Rajoy supone una invasión de competencias en la CAPV ya que el Gobierno Vasco tiene competencias exclusivas en materia de comercio.

Las delegadas de comercio de ELA nos concentramos ese mismo día en Gasteiz ante la sede de Lakua para manifestar nuestra oposición al trabajo en domingos y festivos. La Comisión Consultiva decidió finalmente no fijar el calendario de aperturas. **Otra batalla más ganada.**




ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

## Afiliazio orria
Hoja de afiliación

NAN/IFZ: ____ DNI/NIF
Emakumezkoa / Mujer ☐
Gizonezkoa / Hombre ☐

Izena: ____ Nombre

1.abizena: ____ 1º apellido

2.abizena: ____ 2º apellido

Jaiotze herrialdea: ____ Lugar de nacimiento
Jaiotze data: ____ Fecha nacimiento

Herria: ____ Localidad
P.K.: ____ C.P.

Helbidea: ____ Dirección

Herrialdea: ____ Provincia

Telefonoa ____ Teléfono
Mugikorra: ____ Móvil

E-posta: ____ E-mail

Lantokia: ____ Empresa

G.S.ko kotizazio kontu kodea: ____ Código cuenta cotización S.S.

Helbidea: ____ Domicilio

Herria: ____ Localidad

Lanbidea: ____ Profesión
Kategoria ____ Categoría

Lan-hitzarmena ____ Convenio

Banku edo Aurrezki Kutxa: ____ Banco o Caja de Ahorros

Kontuko zenbakia: ____ Nº de cuenta

Data / Fecha
Sinadura / Firma

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenez, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege-Dekretuak garatutakoaren arabera, ELA sindikatuan izena ematen duenak badaki, eta onartu egiten du, bere datuak Sindikatuko artxibo automatizatuetan jasotzen direla; datuak artxibo horietan era konfidentzialean jasota geratuko dira. Datu horiek indarrean diren arauak aintzat hartuz landu eta babestuko dira, eta bere titularrak eskubidea izango du Sindikatuaren aurrean, datuetara iritsi, horiek zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko.

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de Carácter Personal, y su desarrollo por el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, la persona que se afilia en el Sindicato ELA queda informada y acepta la incorporación de sus datos a ficheros automatizados existentes en el Sindicato, que se conservarán en el mismo con carácter confidencial. Tales datos serán tratados y protegidos con arreglo a la normativa vigente, y el titular de los mismos podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación u oposición ante este Sindicato.

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# MERKATARITZAKO LANGILEAK... ...BORROKAN!

**Hori da gure lan baldintzak hobetzeko dugun tresnarik eraginkorrena**

# ENPRESETAN ANTOLATZEA DA ALTERNATIBA BAKARRA

Joan den urriaren 18an LABek bilera batera deitu zituen merkataritzan ordezkaritza duten enpresarioen elkarteak eta sindikatuak, sektoreko Marko-Akordio bat bultzatzearren. LABen arabera, ekimen honen helburua "sektorea blindatzea" da, besteak beste eragozteko enpresetan sektorerako ezarritako lan-baldintzak baino okerragoak ezartzea.

**Zer esan zuen patronalak proposamen honi buruz**? Hasteko, publiko aurrean eta esparru pribatuan adierazi du lan-erreformarekin pozik dagoela. Badaki zertarako erabaki den, lan-baldintzak okertzeko lagungarri izan dakion, eta adierazi zuen sektoreko baldintzak baino apalagoak enpresan negoziatzeko aukera ezin dela saihestu, eta gainera ez duela nahi. Ugazaben ordezkaritzak esan zuen LABek egin nahi duen moduko akordio bat ezdeusa litzatekeela, eta enpresentzat ez litzatekeela bete beharrekoa izango. Areago, LABi gonbitea egin zion erreforma irakur zezan.

**Zer dio legeak Rajoyren erreforma ostean?** Langileen Estatutuko 84. artikuluan esaten da hainbat gairi dagokionez –soldata, lanaldiaren banaketa, kontratatzeko moduak, aparteko orduak, kontziliatzeko neurriak eta gehi daitezkeen beste batzuk– enpresetan erabakitzen denak lehentasuna duela beste edozein esparrutan arau daitekeenaren aldean. Gai hauei buruz erreforma oso argia da: edozein lanbidearteko akordio, marko-akordio edota hitzarmenek enpresan ezarritakoa galarazteko helburua balu, baliorik gabea litzateke. Hain zuzen, Auzitegi Nazionalak dagoeneko puntu hau finkatzeko epaia eman du.

Horrenbestez, LABen jarrerak bi arrazoi izan ditzake:

**a.-** Rajoyren erreforma ez dute ezagutzen, zeinaren aurka greba orokorra egin baikenuen negoziazio kolektiboa hankaz gora jartzen zuelako.

**b.-** Bigarren aukera: erreformari buruzko egia ez esatea erabaki dute, sektoreko langileei ezinezko alternatiba bat saldu nahian.

CCOOek eta UGTk, berriz, esan zuten ez diotela inongo negoziazio esparruri uko egingo. Estatu mailako hitzarmenekin gure eskubidea zapuzten dute, berton negoziatzeko aukerarik izan ez dezagun.

ELA betidanik izan da merkataritzako hitzarmen probintzialen aldekoa. Haatik, orain Rajoyk erabaki bat hartu du, eta hau ezkutatzea arduragabekeria litzateke: hitzarmenak aurrerantzean ez dira benetako hitzarmen izango, gomendio huts baizik. Ez dira izango enpresek derrigor bete beharreko gutxienekoa. Zergatik ukatzen du LABek edonorentzat nabarmena den errealitate hori? Izan ere, errealiteatea ukatzearekin batera, ez baigenuke etorkizuna prestatuko: hemendik aurrera enpresa eta lantoki bakoitzean indar sindikala behar-beharrezkoa izango da, lan-baldintzak defenditzeko.

**ELAk berriro dio: bide bakarra dago, enpresetan antolatzea.** Hori izango da berme bakarra, lan-baldintzei eusteko blindajea izateko modu bakarra. Legeak eraman araziko du funtsezko gaien negoziazioa enpresa mailara. ELAren ustez, ezin da ulertu gaur ukatzea erreformaren ondorioz enpresetan negoziatzera behartuta gaudela.







# IGANDE ETA JAI EGUNETAN IREKITZEAREN AURKA

Uztailean Rajoyren gobernuak Lege Dekretu bat publikatu zuen. Bertan Txikizkako Merkataritzarekin lotutako neurri sorta bat jasotzen zen, hainbat gaietan eragin berezia duena. Besteak beste:

**a)** Igande eta jai egunetan komertzioak zabaltzeko egun kopurua 8tik 10era pasatzea gutxienez.

**b)** Ordutegiei dagokionez: komertzioak astean gehienez 72 ordu zabaltzeko aukera izatetik 90 ordu zabaltzeko aukera izatera igarotzen dira.

Aldaketa hauek direla-eta Eusko Jaurlaritzak bilera batetara deitu gintuen urriaren 2rako, jai egunen zabaltze-egutegia ezartzeko.

Hau izan zen ELAren jarrera bilera hartan:

- Ez dugula negoziatuko igande eta jai egunetan merkataritza-guneak zabaltzea baimenduko duen inolako egutegirik. Urteak daramatzagu gai honen inguruan dugun jarrera azalduz. **Jai egunetan denok jai.**
- Kontsumitzaileek eta merkatarien elkarteek ere zabaltzearen aurka daudela nabarmendu genuen.
- Duela hainbat hilabete kanpaina bat egin genuela aipatu genuen: 60.000 lagunek sinatu zuten igande eta jai egunetan zabaltzearen aurka.
- Enpleguaren aurka doan neurri bat dela salatu genuen. Espainiar estatuan neurri hauek aurrera eraman dituzte, eta sektorean gertatu den enplegu galera nabarmena da.
- Merkataritzako langileek asteko-atsedenaldirako duten eskubidea defendatzen jarraitu genuen.
- Igande eta jai egunetan zabaltzearen erabakia lan eta familia bizitza kontziliatzeko neurrien aurkakoa dela nabarmendu genuen.
- Rajoyren legea EAEko eskumenen aurkako inbasioa dela aipatu genuen; izan ere, Eusko Jaurlaritzak merkataritzaren alorrean eskumen esklusiboak ditu.

ELAk merkataritzaren alorrean dituen delegatuak egun horretan bertan elkarretaratu zinen Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean igande eta jai egunetan zabaltzearen aurka dugun jarrera adierazteko. Kontsultarako Komisioak azkenean irekiera egunak egutegian ez finkatzea erabaki zuen. **Irabazitako beste bataila bat.**




ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

**Afiliazio orria**
Hoja de afiliación

NAN/IFZ: ____ DNI/NIF
Emakumezkoa / Mujer ☐
Gizonezkoa / Hombre ☐

Izena: ____ Nombre

1.abizena: ____ 1º apellido

2.abizena: ____ 2º apellido

Jaiotze herrialdea: ____ Lugar de nacimiento
Jaiotze data: ____ Fecha nacimiento

Herria: ____ Localidad
P.K.: ____ C.P.

Helbidea: ____ Dirección

Herrialdea: ____ Provincia

Telefonoa: ____ Teléfono
Mugikorra: ____ Móvil

E-posta: ____ E-mail

Lantokia: ____ Empresa

G.S.ko kotizazio kontu kodea: ____ Código cuenta cotización S.S.

Helbidea: ____ Domicilio

Herria: ____ Localidad

Lanbidea: ____ Profesión
Kategoria ____ Categoría

Lan-hitzarmena ____ Convenio

Banku edo Aurrezki Kutxa: ____ Banco o Caja de Ahorros

Kontuko zenbakia: ____ Nº de cuenta

Data / Fecha
Sinadura / Firma

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak zehazten duenez, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege-Dekretuak garatutakoaren arabera, ELA sindikatuan izena ematen duenak badaki, eta onarta egiten du, bere datuak Sindikatuko artxibo automatizatuetan jasotzen direla; datuak artxibo horietan era konfidentzialean jasota geratuko dira. Datu horiek indarrean diren arauak aintzat hartuz landu eta babestuko dira, eta bere titularrak eskubidea izango du Sindikatuaren aurrean, datuetara iritsi, horiek zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko.

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de Carácter Personal, y su desarrollo por el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, la persona que se afilia en el Sindicato ELA queda informada y acepta la incorporación de sus datos a ficheros automatizados existentes en el Sindicato, que se conservarán en el mismo con carácter confidencial. Tales datos serán tratados y protegidos con arreglo a la normativa vigente, y el titular de los mismos podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación u oposición ante este Sindicato.

www.ela-sindikatua.org